

I. XEDAPEN OROKORRAK

OSASUNeko, GIZARTE ZERBITZUETAKO ETA BERDINTASUNeko
MINISTERIOA

14027 *Hutsen zuzenketa, honako honena: 1/2015 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 24koa, Sendagaien eta Osasun-produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen Testu Bategina onartzen duena.*

Hutsak atzeman dira uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuan (Sendagaien eta Osasun-produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen Testu Bategina onartzen duena), zeina *Estatuko Aldizkari Ofizialaren* 2015eko uztailaren 25eko alean (177. zk.) argitaratu baitzen. Honen bidez, zuzenketa hauek egiten dira:

5. orrialdean —hitzaurrean—, lehenengo paragrafoko zortzigarren lerroan, hau dioen lekuan: «...animalientzako sendagaietara...»; hau esan behar du: «...albaitaritzako sendagaietara...».

63. orrialdean, 105. artikulua 2. zenbakian, hirugarren lerroan, hau dioen lekuan: «...92.6 artikuluan...»; hau esan behar du: «...91.6 artikuluan...».

67. orrialdean, 111. artikulua 2. zenbakiko b) letraren 16. arau-haustean, hau dioen lekuan: «Sendagaiak mediku-preskripziorik gabe dispentsatzea, hura nahitaezkoa denean.»; hau esan behar du: «Sendagaiak errezetarik gabe dispentsatzea, hura nahitaezkoa denean.».

79. orrialdean, 123. artikulua 1. zenbakiko 1.19 epigrafean («124.6 artikuluan aurreikusitako jardueretarako tasa»), zeina «I. multzoa. Gizakientzako sendagaiak» «Beste batzuk» atalaren barruan baitago, hau dioen lekuan: «124.6 artikuluan aurreikusitako jardueretarako tasa»; hau esan behar du: «123.6 artikuluan aurreikusitako jardueretarako tasa».

81. orrialdean, 123. artikulua 1. zenbakiko 4.1 epigrafean («Andui bakar bat»), zeina «IV. multzoa. Gizakientzako eta albaitaritzako sendagai homeopatikoa» «Onartutako sendabiderik gabeko sendagai homeopatikoa berri bat ebaluatzea, baimentzea eta erregistroan inskribatzea» «Prozedura nazional sinplifikatu batentatikoa»ren barruan baitago, hau dioen lekuan: «569,69»; hau esan behar du: «596,69».

90. orrialdean, hamahirugarren xedapen gehigarriaren 1. zenbakiko lehenengo lerroan, hau dioen lekuan: «88. eta 90. artikuluetan,...»; hau esan behar du: «87. eta 89. artikuluetan,...»